Diego Maiora, eskultore segurarra

Artearen historia agirien bidez ikertze kontuan, beste gauza askotan bezala, oso ahul eta atzeratuak gabiltza. Bitartean eztabaida antzuetara maiz jotzen dugu, euskalduna artegintzarako ahalmenik izan duen ala ez, euskal arte jatorrik ba ote den, koloreak nabaritzeko ahalmen berezirik ote dugun eta abar. Sistematikoki ikerketak egin baino lehen erabakiak atera nahi ditugu, ia artegintzari gure altetik ezer eman diogun ala ez jakiteko. Gauza askotan bezala, sentipen hutseri amain emanik eta errazoi bideetatik urruti.

Gauza hauek bideratzeko ikerketen premiaz gara eta ikerketerako gure geure instituzioak behar ditugu, eta hau, ametsak amets aldebatera utzirik, gaur egun autonomia bideak eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxaturik zuzendu beharrezkoa dugu. Gure nortasunari dagozkion azterketak eta aurrera begirako kultur ekintzak, gaurkoz, autonomia bidetik eraman ahal direnak dira. Gaineran-tzean, ahuntzaren gauerdiko eztula.

*Arte ikerketaz, Gasteizko Apezpikutegia egiten ari den **Catálogo Monumental** dugu zer egin behar denaren eredugarrizkoetarik bat. Bere zuzendari den Mikaela Portillak esaten zidan igaz, harriturik baina pozez, XVII. mendearen hasieretan segurar eskultore baten lanak aurkitu dituela Araban, agirietan agertzen denez, Onralta eta Ozaetako erretaulen egiletzat, Diego Maiora izen deiturazkoa. Bere harridura, Araban hainbeste artista zen garaian gipuzkoar bat bertako lanetan aritzearena zen. Tomas Biurrun nafarraren **La escultura religiosa y Bellas Artes en Navarra durante la época del Renacimiento** (Iruña, 1935) eta M.A. Arrazolak Gipuzkoako Pizkunde arteaz egindako lanak begiratzeko esan nion, kor aipatzen zirelako segurarraren beste lan batzuk eta.*

Diego Maiorak egina da Olaztiko erretaula nagusia. Ziordirako ere egin omen zuen beste bat baina eliza hontan XVIII. menderaren bukaeretan beste berri bategatik aldatu zen.

XVII. mendearen lehenetik erdialdera agertzen zaizkigu bere lanak. Barrokoaren hasiera garaia bazen ere, Diego Maiora orraindik Pizkunde garaiko estiloekin zebilen. Eta, estilo honetan ere Joanes Antxieta azpeitiarraren jarraitzaileetakoa zen. Gipuzkoan bertan ezagutzen diren lanak: Lezo, Cerain, Ataun eta behar bada Gainzako erretaulak ditugu.

*Denok dakigu Antxietaren ikasle eta jarraitzailerik jatorrena Anbrosio Bengoetxea genuela. Bere eskuz eta gogoz maisuagandik hurbil ibili zen eta Gipuzkoan lan handiak utzi zizkigun. Biurrunek berak, uste zuen, Lezoko erretaula ederra A. Bengoetxearena zela, baina M.A. Arrazolak agiriz demostratu zigun Diego Maiorarena zela. Hala aipatzen du bere **"El Renacimiento de Guipúzcoa** (t. II, 286 orr.) lan bikainean. Zerain eta Gainzakoen berri ere ematen digu.*

*Baina, Biurrunen begi zolia ez zebilen hain oker edo hain urrun. Inazio Iparragirrek **Cinco Villas del Alto Goyerri (1975)** deritzan monografian Zeraingo erretaulaz ari denean, Maiora segurarra A. Bengoetxearen ikasletzat jotzen du.*

*Gainzakoari buruz ordea, agiriak azaldu beharra dugu. M.A. Arrazolak, bere lanean, aipatu besterik ez du egiten eta Jose Maria Sukiak **Alza-Arama-Gaira-Isasondo y Legorreta** (1975) deritzan monografiaren 103. orrialdean, hara zer dion: "Su retablo es similar al que existe en Hernialde, y es obra de Zatarain". Itxuraren eritzizkoa ote? Ala agirietatik atera ote zuen? Jakitekoa litzake.*

*Artezale ikertzaileak, orainarte, Ataungo San Martingorik ez dute aipatu. Baina Ataungo artxiboak xagua bezala ikertu zituen Juan Arin Dorronsoro zenak aspaldi eman zuen berria, eskultore hontaz inork ezer etzekien garaian, Non eta "Ataun. Toponimia de carácter religioso" lanean, **Anuario de "Eusko-Folklore"** (IX. tomoa, 1929. urtea) ikus 29. orrialdean. Gero, lasaiago eta zehatzago agertuko zigun **Clero y religiosos de Ataun** (Gasteiz, 1964) deritzan liburuaren 9. orrialdean. Geroago, gazte talde batek elkarlanean burutu zuten Ataun (1975) deritzan monografiaren 88. orrialdean ere horrela jasotzen da. Hemen, erretaulako santu nagusia, San Martin de Tours, ez dakigu zer arrazoigatik, geroztiko irudia da, Santiago Masily-1780. urtean egina.*

Ikertuz goazen artean bere lan gehiago agertuko dira, baina orainarte ezagutzera iritsi geran hauek Diego Maiora eskultore segurarrai ospe handia ematen diote eta aurrerantzean, behar bada, gure Pizkunde garaiko eskultore handien artean toki berezi baten merezimendua du.

Dena dela, orainartekoen artean, seguraski, Olaztikoa izango da ezagutzen direnetan lanik ederrena. D. Maioraren lanetan, neronek ikusi ditudanetan behintzat, gora-behera handiak nabari dira, behar bada bere langileak hautatzean edo presupuestoak beharturik, baina kontu gehiegirik izan etzuelako nonbait.

Juan SAN MARTIN

La investigación histórico-documental de obras de arte es casi nula entre nosotros. El catálogo documental de la Diócesis de Vitoria podía ser una obra a imitar. Nos llevaríamos muchas sorpresas y probablemente borraríamos bastante de esa fama que llevamos de pueblo que apenas ha producido arte. Micaela Portilla que dirige el referido catálogo, con sorpresa y alegría me manifestaba, hará cosa de un año, que había descubierto algunas obras de un escultor guipuzcoano en Alava a comienzos del siglo XVII, cuando precisamente en aquella provincia abundaban tantos artistas, el escultor era Diego de Mayora de Segura y sus obras los retablos de Onraita y Ozaeta, si mal no recuerdo.

Tomás Biurrun que fue un gran investigador navarro, en su obra sobre escultura religiosa en la época del Renacimiento nos habla del escultor segurarra al estudiar el retablo de Olazagutia como "magnífica obra", realizada hacia 1600, según consta en el Archivo Episcopal. También ejecutó otro retablo para Ciordia, y ha desaparecido de esta iglesia, sustituido por otro de fines del siglo XVIII.

Sin embargo, Biurrun que atribuyó el retablo de Lezo a Ambrosio Bengoechea, M.A. Arrázola pudo demostrar documentalmente como obra del escultor Diego de Mayora, con la colaboración de Domingo Goroa en el ensamblaje. El hecho de atribuir a Bengoechea atestigua la talla del escultor de segura. Ignacio Iparraguirre, en su monografía de las **Cinco Villas del Alto Goyerri (1975)**, al tratar del retablo de Cerain, le considera discípulo de A. Bengoechea.

Además del retablo de Cerain, Guipúzcoa, M.A. Arrázola le considera autor del de Gainza, pero también de Suquia, en su monografía, aparece como obra de Zatarain. Me temo que se basaría en algún documento y no por el simple hecho de ser similar al que existe en Hernialde. Convendría averiguar.

Pero hay otra obra más en Guipúzcoa, que es el retablo mayor de San Martin de Ataun, tallado por Diego de Mayora en 1780, según podemos leer en **Cinco Villas del Alto Goyerri** (1964) de J. Arín. La imágen del santo titular, muy posterior y es obra escultórica de Santiago Masily, realizada en 1780.

La obra de Mayora es bastante desigual, porque no cuidó demasiado las diferencias de los nobreros. La mejor obra es sin duda la de Olazagutia. El retablo de cuatro cuerpos que forma completo el ábside. Dos de los cuadros apaisados en el banco que casi puede llamarse, 1er cuerpo, representan la Ultima Cena y el Descendimiento. En los paños las Virtudes Teologales y Cardinales. Diversas escenas en bultos y en medio relieve, hay de la Virgen y de San Miguel Arcángel, se conservan perfectamente. Debieron hacerse junto con él, dos colaterales, obra de la misma mano y del mismo estilo rococó.

Foronda, mundura zabalik

Hona hemen aspaldiontan euskaldunen ahotan sarri entzun ahal izan dugun izena: Foronda. "Mundura zabalik" dio Arabako aireportu honi buruz gerturiko zabalkundeak. Eta orain dela zenbait hilabete arte gutxik ezagututako bazter honek arrazoia eman nahi omen dio publizitateari, geroago eta gehiago baitkara aireportuaren zerbitzuak erabiltzen ditugunok, nahiz eta bertako taxilariek alderantziz uste izan.

Nik neuk laupabost bider izan dut aukera Forondako aireportutik abiatzeko eta, guztietan, hegazkinak eskainitako hegadaz batera beste motakoa ere sentitu ahal izan dut nere barnean, irudimenarena makinarena baino lasterragoa zebilelarik. Foronda, aireportu bat baino zerbait gehiago ere baita.

Urteak dira, hamabost?, Forondan lehen aldiz egon nintzela. Eta orduantxetik, zinez, bazterretako edertasun eta pakeak liluratu egin ninduen osoki. Gasteiztik Murgiarako bide nagusitik apurño batez bazterturik egoteak holako lekautiren barnebiltasun goxoa ematen zion, herrira zeraman bidexkako alde bietako zuhaitz lerro luzeek paketasunaren atarikoa ziruditelarik. Sar gaitezen, pixkat behintzat, herri honen historian. Foronda Badayod deritzan Anaiartekoaren kide daukagu ondoko herrixka hauekin batera: Antezana (hiriburua), Legarda, Mendiguren, Arangiz, Artaza, Ullibarri-Lavin, Yurre, Mandojana, Gereña, Lopidana, Olaza eta Aztegieta. Bere aldetik, Anaiartekoa Araba osatzen duten kuadrilletako seigarrenean dago sartua.

Dozena pare bat etxe eukiko zuen Forondak aireportuko obrak hasteau, haietan ehun pertsona inguru bizi zelarik. Ogibidea nekazaritzan izan ohi zuen, gehien bat; orain dela gutxi arte forondatarrek. Galsoro zabal eta joriek urrezko itsasoa ematen zuten orain bide, pista... hegazkinak ikusten ditugunean.

Herria bitan zatitzen duen Zalla errekan karramarro eta loinak harrapatzen eman ditudan une pozgarriak! Oraindik ixiluneko arrantzale hutsa izaten dirauen Gasteizko Olave zaharrak zenbat soka eta butrino ez ote dituen errekako ertzetatik, amuarrain bila, uretara bota!!

*Herriko jaiak Hazilaren 11.an, Tourseko Martin deunaren eguna, ospatzen dira eta aipatutako saindu honi dago eskainia Eliz Nagusia. Neoklasiko estiloan eginda, errektangulu itxura duen oinarriak bi kapera dauzka aldamenetan. Harlanduzko atarikoak, berriz, puntuerdiko hiru arku azaltzen ditu. **Jose Morazaren** projektuari jarraiki elizbarruko lauzaketa eta harri-lanak **Ramon Abalos** harginak egin zituen 1788.an.*

*Aldare Nagusia, Ebangelio eta Epistolaren erretaulak **Justo Antonio de Olagibelek** diseinatu zituen 1796.an, hurrengo urtean, Balendin Aranbarri arkitekto eta pintatzaileak gauzatzen zituelarik. Irudiak, berriz, **Juan Bautista Mendizabalen** eskuetatik irten ziren.*

*Bestalde, Kristobal deunaren egunean ere nolabaiteko ospakizuna izan ohi da Forondan, kanposantuko kapera hari baitago eskainia. Eta ohiturari jarraituz, egun honetan hilherrian den Meza entzunda gero, elizondoko "Espoloi"ra bildu ohi dira forondatarrak ogi, gazta eta ardoa banatu eta dastatzeko. Ohitura hau, herriko bi eskolak eraikierazi zituen **Juan Pastor de Aztegieta** indianoaren egunetatik ei dator, honexek utzi baitzituen txanpon batzu urteroko ekintza horretarako.*

Aipatu dudan bezala, bi eskola ban dira, neska eta mutikoentzat, ia gaur arte herrian, baina egun Gamarrako eskoletara doaz umeak hantxe batu baita inguruko eskolen zerbitzu zentrala.

*Forondan den eraikuntzarik bikainena Markesarena izango da, agian. **D. Mariano de Foronda** izeneko jauntxo baten eragipenagatik joandako mendean Bartzelonan izandako greba batzuek konpondu bide ziren. Markesaren titulua eskaini omen zion Estatuak sari gisa, jaun horrek Forondakoa aukeratzen zuelarik. Ondorio bezala, eraikuntza eder eta bikain bat jasoerazi zuen herri honetan. Baina, honelako kasu gehienetan gertatzen den bezala, jauntxokeriaren hazia lurrean sustraitu ezin denez, bertan behera utzita aurkitzen da etxe hau.*

Bada jauregi antzeko beste eraikuntza bat ere, altatutako Pastor de Aztegietak eraikia, gaurregungo ugazaba Espainiako ministro izandako Santiago eta Diaz de Mendivil jauna delarik.

*Aireportuarekin batera poza eta nahigabea etorri ei dira. Beti bezala. Lurran saldu ahal izan dituztenek diru deente atera omen dute saleroskетatik. Baina etxeak nahiz lurrak maiztertzan zeuzkatenak ez dira, itxuraz, hain ondo gelditu. Eta, hain zuzen ere, aireportuaren inguruan sortu ziren zurrumurruak gauzatzen joan zirenean **Nuñez** zine-zuzendari gasteiztarrak **"La última tierra"** izeneko pelikula filmatuz zuen. Errenderiko **Sabino Olaskoaga** eta urtetan zehar Forondako maixtra izan den **Kasilda Azkarraga** aukeratu zituen artistarik garrantzitsuentzat. Txomin eta Adela, lur-jabe ez diren senar ematearen paperak bete behar zituzten artista amateur hoiek. Aireportuak behar dituen bi pertsonaia hauek erabiltzeko lurran ordain, sarrera ez dio*

Gasteizen etxe bizitza erosi ahal izateko lain ematen. Eia, bihotzak urratuta, hiriburuko "Hermanitas de los Pobres" delakora jo be8ar dute aterpe bila. Heuren —heurak baitziren langileak— lurrak utzi behar izan dituzte, ia hutsaren truk, beste guztion onerako.

Behinola hegazkinez Forondara bazatozte, eska ezaiozue baimena pilotoari eta ematen badizue zoazte bere kabinara. Gasteizera heltzen ari zaretelarik zoragarrizko irudia aurkeztuko zaizue, gauez are zoragarriagoa oraindik, pistako argiek egindako jokuei esker. Begi aurrean daukazuena atsegingarri izango zaizue, ezpairik ez. Baina, orduan xehetasun batez gogoratzea eskatuko nizueke: han, zuen aurrean dagerren pista inguruan ba da aireportu bat baino gehiago den zerbait.

José Mari Velez de Mendizabal

"Abierto al mundo" es el slogan de la campaña publicitaria realizada como promoción del aeropuerto Gasteiz-Foronda. Y Foronda es una de las palabras que, relacionando el término de ubicación, de aquél, más se puede estar usando en Euzkadi actualmente al hacer referencia a transporte. Se da la circunstancia que ha surgido casi del anonimato, ya que ¿quién conocía antes de la construcción del aeropuerto la existencia de Foronda? Porque Foronda es algo más que un aeropuerto. Creo serán ya quince años que llegué por primera vez a este pueblecito. Apartado de la carretera Gasteiz-Murgia, su aspecto recordaba el punto de ubicación adecuado para el recogimiento monacal, Sosiego y tranquilidad eran constantes de la Foronda.

Este término, perteneciente a otros doce a la Hermandad de Badayod integrada ésta a su vez en la Cuadrilla Sexta alavesa, contaba con más allá de dos docenas de casas que dan cobijo a unos 200 habitantes. El trigo, junto con la patata, han sido durante largo tiempo la principal fuente de ingresos del pueblo. La crianza de ganado, asimismo, su relativa importancia.

Bañada por el río Zalla, como patrono a San Martín, a quien le dedicado la Iglesia Parroquial erigida en 1788. De estilo barroco se pueden apreciar en ella retablos diseñados por Juan Antonio de Olagibel y ejecutados por Valentín Aranbarri. Las imágenes son de Juan Bautista de Mendizabal.

En la capilla del cementerio se cada a San Cristóbal, se celebra todos los años una Misa el 25 de julio y a continuación se reparte entre los feligreses pan, queso y vino. Esta costumbre parece haber sido instaurada por el indiano Don Pastor de Aztegieta que fue, según parece, fumador de las dos clases y que ha funcionado hasta hace poco tiempo en la localidad.

La edificación que llama la atención es la propiedad del marqués de Foronda. Este hombre, Mariano de Foronda, que no tiene ningún vínculo de ascendencia con el pueblo, parece recibió el título como recompensa por su actuación en unas famosas huelgas textiles de cabo en Barcelona durante el siglo. Y con el título en la mano decidió erigir un precioso chalet a su [illegible]